

Arrasate

P R E S S

1995eko
Abenduak 29
302. zenb.

un dugu Arrasate...
ia izan zela Euskal Herria...
baina orain Arrasate...
erri guztietan ikusten ditugun...
ona komeni zaio orain A.P.-i...
aldizkariaren modelo estandarra...
eta beste bide berri bat jorratu, for...
berri batekin. Ez dakit herritarra ondo...
armatuta sentituko den ala ez, baina Arra...
e mini-medien trinkete-frontoia bihurtu...
non albiste horiak leku batetik bestera...
ebotzatzen diren eta letxe. Gauzak...
prelari, kritikari, ezta...
dara...ango n...
ehiag...
ahaztuz...
iririk, eta j...
ko prest, ko...
ngo nintzatek...
ntsiala eta Arrasate...

rudi, bes...
baino ge...
an aurkitu...
la ostiral h...
kurri nahi z...
Bestalde...
tzeko astekar...
tsatu behar z...
ka etxetara...
la sar zit...
tsu, h...


harriletik...
ngo duz...
i utzik...
rkizuz...

GL...
on? O...
oiz? Ur...
ola? Ast...
oin...

E...
do...

Urte berri on!

ART




Urte barri-barri
txarri-belarri
daukanak
ez daukanari
kolkua bete
madari!

Zuen zerbitzura



ARRASATEKO UDALA



Kantu hotsez
 hotzak astinduz
 urte zabar urte barri
 gureak berean darrai
 etenezin
 berdin berdin
 betikoari eutsiz
 eraberriak erakutsiz
 ezer ez baita amaitzen
 alditxo bat ezik.
 Asmatuko ditugu bideak
 etorkizuna zeharkatzeko
 urrun direnak hurbileratzeko
 urte zabar urte barri
 geratzen da galgarri
 gureak berean darrai
 betikoari eutsiz.

XABIER ZUBIZARRETA
 ARRASATEKO ALKATEA

**Guxtiz
 berriztutako
 taberna
 salgai
 ezin
 atenditzeagatik.
 Tfnoa: 77 07 80**



**ELEKTRONIKA
 ARTIKULUEN
 SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1
 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Memesa
79 42 22




ARRASATEKO UDALA
 AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Aldizkari honek Arrasateko
 Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Eusko Jaurritzako Kultura eta
 Turismo Sailaren laguntza jaso du

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
 Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Kamele Perez, Sorginak, Kopti, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Ixe-lxa komiki taldea. **Banaketa arduraduna:** Xabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko ilustrazioa: Iban Astondoa

1995-96

II. HIRUHILABETEA

IKASTAROAK

Goiz, arratsalde eta gauzez:

- L.H.I. heldutasun frogarako prestakuntza.
- Geriatria.
- Psikologia soziala.
- Sukaldaritza eta gozogintza.
- Altzari berriztapena eta brikolajea.
- Hazienda(B.E.Z., Errentaren Aitorpena...): Basikoa.
- Eta abar luze bat.

Urtarrilaren 8tik aurrera zentrua eta matrikula zabalik.
Izenematea eta informazioa:

Famili eta Gizarte Hezketarako Zentrua

Santa Teresa, 12 • Tfnoa: 79 04 59 (Utzi zure mezua).



kutxa

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Zer eskatu diozu urte berriari?




Gurutze Mujika
Baserritarra
(36 urte)

Ezer gutxi. Eskatu beharrekoa eskatuta daukat, hor dator umetxo bat.



Goreti Gonzalo
Ikaslea
(15 urte)

Mundu osoan pakea egoitea gustatuko litzaidake. Neuretzat, berriz, arropak nahi nituzke.



Andoni Solupe
Ikaslea
(15 urte)

Batez ere osasuna, osasun ona edukiaz gero niretzat nahikoa da. Hasi berri den urteari begira baikorra naiz.



Luisa Sanchez
Ikaslea
(18 urte)

Osasuna eta dirua. Urte berria urte zaharra baino hobea izan dadila.



Angel Moraleja
Langilea
(28 urte)

Lana, osasuna eta pakea, baina benetako pakea, ez bazuk nahi duten hori.



Miren Marco
Ikaslea
(16 urte)

Alde batetik pakea egoitea eskatuko diot, bestetik nik neuk dena aprobateza, baina hori oso zaila da.



Marta Simon
Ikaslea
(28 urte)

Denok zorientsuak izatea eta denok pozik egotea, jendeari ondo joan dakiola datoren urtea.




M. Consuelo Larreina
Etxekoandrea
(53 urte)

Osasuna eta lana. Gauzak kilo-kolo daude, baina aurrera begira uste dut gauzak konponduko direla.



Bonaventura • Diesel • Pepe
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Barrenkale, 35 BERGARA Tfnoa: 76 03 98



JATETXEA

GURUTZE MUJIKAREN pintura erakusketa
Abenduaren 5etik urtarrilaren 7ra

Areantza auzoa • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 17 51

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola78 71 57

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria77 03 46
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 64
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazki45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 14
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 79

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 29

Egunez eta gauez: Amezua, Santamaina.

Larunbata 30

Egunez eta gauez: Ruiz, Maala.

Igandea 31

Egunez eta gauez: Morales, San Andres.

Astelehena 1

Egunez eta gauez: Azkoaga, Ferrerías.

Asteartea 2

Egunez eta gauez: Camachol Bergara.
 10ak arte: Español, Iturrioz.

Asteazkena 3

Egunez eta gauez: Puy, Bergara.
 10ak arte: Corcuera, Musakola.

Osteguna 4

Egunez eta gauez: Cuellar, Bergara.
 10ak arte: Irizar, Erguin.

29 OSTIRALA

• **ZINEA**

“Hechizo de la ruta Maya” 7etan.
 “El día de la Bestia” gaueko 10etan.

• **GOROSARRI ABESBATZAREN KONTZERTUA**

Gorosarri abesbatzaren kontzertua Eskoriatzako San Pedro Parrokian gaueko 10etan.

• **KAFE ANTZERKIA ARETXABALETAN**

Ñake taldeak “Pocos y mal avenidos” antzezlan antzertuko du Kurtzebarri eskolan gaueko 10etan.

30 LARUNBATA

• **ZINEA**

“Hechizo de la ruta Maya” 5etan.
 “El día de la bestia” 7.30etan eta 10etan.

31 IGANDEA

• **ZINEA**

“El día de la bestia” 5etan eta 7.30etan.

• **ARRASATEKO BANDAREN KALEJIRA ETA KONTZERTUA**

Goizeko 11.30etan Arrasate Musikaleko Bandaren kalejira herriko kaleetan. Eguerdiko ordubatean kontzertua Herriko Plazan.

• **BIZAR ZURI ARETXABALETAN**

Arratsaldeko 6.30etan Bizar Zuri Aretxabaletako kaleetan.

BEGIRALE ETA ZUZENDARI IKASTAROAK

Bergarako Jardun elkarteak antolatuta urtarrilaren 27an hasi eta maiatzara arte, Begirale eta Zuzendari tituloak eskuratzeko ikastaroa burutuko da astebururo. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek 25.000 pta. ordaindu eta izena eman beharko dute 76 08 19 telefonoan, Jardun elkartearen.

OHARRA

Urtarrilaren lehen astean oporrak hartu behar ditugunez ez duzue ARRASATE PRESS aldizkaria jasoko zuen etxeetan. Aldez aurretik beraz, zorionak eta urte berri on irakurle guztiei!



PINTURA ERAKUSKETA HARRESIN

Conchita Zarragoien pintura erakusketa urtarrilaren 7a arte Harresi aretoan. Ordutegia: egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8ak arte.

HARATUZTEETAKO KARTEL LEHIAKETA

Arrasaten bizi edo erroldatuta dagoen edozein pertsonak har dezake parte. Kartelen neurriak 50 X 70 zentimetrokoak izan beharko dira. Kartelak nahi eta nahiez bertikala izan behar du. Teknika librea. Karteleko testua 1996 Haratuzteak Arrasate. Irabazleak 50.000 ptako saria jasoko du. Kartelak urtarrilaren 19a baino lehen Udaletxera bidali behar dira bertako Kultura Departamentura.

TAKOLO, PIRITX ETA PORROTX ARETXABALETAN

Arratsaldeko 5etan Zaraia zineman Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldia. Sarrera: 500 pta. eta aurrez erosita 300 pta.

1 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"El dia de la bestia" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ETXAFLEROAK PRESOEN ALDE**
Urte zahar eguneko kanpai hotsak entzun eta gero. Goizaldeko ordubata inguruan. Presoen alde. Gestorek antolatuta.
- **ITZALALDIA**
EKIk antolatuta. Arratsaldeko 7etan etxaflero bat jaurtiko da eta kaleko argiteria itzailiko da minutu batez.

2 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"El dia dela bestia" 7etan eta 9.30etan.
- **TXIKILANDIA MUSAKOLAKO KIROLDEGIAN**
Goizez 11etatik 2etara eta arratsaldez 4etatik 8ak arte. Txatxilipurdik antolatuta Udalaren laguntzarekin.

3 ASTEAZKENA

- **TXIKILANDIA MUSAKOLAKO KIROLDEGIAN**
Goizez 11etatik 2etara eta arratsaldez 4etatik 8ak arte. Txatxilipurdik antolatuta Udalaren laguntzarekin.
- **METALAREN INGURUKO HITZALDIA**
Gaia: Gipuzkoako metalean geroa aurrikuspenezko elkartasun aukeraren azalpena. Monterronen arratsaldeko 6etan. ELAk antolatuta.

4 OSTEGUNA

- **ZINEA**
"Casper" 7etan. "Los puentes de Madison" 9.30etan.
- **TXIKILANDIA MUSAKOLAKO KIROLDEGIAN**
Goizez 11etatik 2etara eta arratsaldez 4etatik 8ak arte. Txatxilipurdik antolatuta Udalaren laguntzarekin.

5 OSTIRALA


- **TXIKILANDIA KIROLDEGIAN**
Goizez 11etatik 2etara. Txatxilipurdik antolatuta Udalaren laguntzarekin.
- **ERREGA KABALGATA**
Arratsaldeko 6etan Meltxor, Gaspar eta Baltasar etorriko dira Arrasatera.

3. ADINEKOEI LAGUNTZEKO ETA TAPIZ MAKRAKE IKASTAROAK

3. Adinekoei laguntzeko ikastaroak astelehen eta ostegunetan goizeko 9etan hasita. Ikastaroa urtarrilaren 15ean hasiko da. Tapiz, makrame eta bolillo ikastaroa astearte eta ostegunetan arratsaldeko 6.30etatik hasita. Informazio gehiagorako deitu 79 04 59 zenbakira. Famili eta Gizarte hezketarako zentruak antolatuta.

ITZALALDIA NUKLEARREN KONTRA

**EKIk antolatuta. Arratsaldeko 7etan etxaflero bat jaurtiko da eta argiteria publikoa itzailiko da minutu batez. Etxeetako argiak ere itzaltzea eskatzen da. Helburua: Frantzia Pazifikokoan egiten ari den froga nuklearren aurka protesta egi-
tea.**



KAMARA ORKESTRA AMAIAN

Urriaren 6an Arrasate Musikaleko Kamara Orkestra Amaia antzokian arratsaldeko 7.30etan.



Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

LENIZ

Garagardotegia

Hasi urtea gurekin batera! Zorionak!

Iturriotz, 8
Tfnoa: 79 22 29 ARRASATE



1996an Euskal Herrian gura ditugu

Idazteari ekin diodanean Olentzero eta Txoronpia kalean dabilta, opari gose eta ahobeteko zoriontasun adurra darien ume-erlez inguratua. Julio Cesar buruzagi erromatarrak Europako herriein egiten zuen moduan egiten du Olentzerok umeein: «Vini, vidi, vinci». Zoritxarrez, latinezko esaldia ezaguna da herri askorentzat eta baita geurearentzat ere... Baina berehala datorkit gogora Asterix eta Obelixen komikietan sarrera gisa datorren esalditxo: «...Erromatarrek galia osoa okupatua dute. Osoa? Ez, Galian nonbait inbasoreari aurre egiten dion herrixka garaitezina dago». Ez dira berba zehatz horiek baina mezua bai, egungo Euskal Herria ikusita gogoeta ugari egiteko moduko esalditxo. «Vini» bai, «vidi» ere bai, baina «Vinci»... oraindik ez.

Eta gauean ama ez zen etxean izango, Arrasateko beste presoan ama batzurekin batera Gabon Eguna Udaletxean pasa zuen, 24 orduko barauan. Amak beren asmoen berri eman zidanean, batetik amorruek korapiloa egin zidan urdailean: «Aurretik be ez gaz danok holako gaba berezixen eta oin ama bez, beti betikook ordaindu behar al dou ba?». Amaren erantzunak ez du ihardespentarako lekuri: «Josepak eta Mariak esautzienien, etxien gaba horretan gauza larrei naukela esan notzien, baina segituen pentsau nauen holako zerbaitek noizbaiten zentzuik baldin badauko, Gabon Egunien dala, eta baietz esan notzien, etxien arreglauko ziela». Ezin ezer esan; dauzkagun amek duten adore, erresistentzia eta kemena mirestu, ezin besterik egin. Eta ikasi, beraiengandik oraindik asko baitaukagu ikasteko. Bihotzak lehen lerroetara bultzatzen ditu eta bihotza duenak bakarrik ulertu dezake hori. Sufritzen duenak, bihotzik baldin badu, uler dezake bestearen sufrimendua.

Baina herri honetan sufrimenduak samurregi egiten da berba, Vallecasen batzuk sufrituko dute, baita Valentzian eta Leonen, eta Oiartzunen... Ezker Abertzaleak badaki zerbait sufrimendu horretaz, horregatik uler dezake, horregatik sus-

traietako konponbidea gura du. Baina Ajuria Enea eta Madrileko Itunen Besar-kadako kideek oraindik ezer gutxi dakite sufrimenduaz. «Biolentoen beldurrari aurre egin behar zaiola? Baina zein beldurri? Izango da beldurrik, jakina, baina argi eta garbi dago herri honetan langa desberdineko beldurrak daudela: erosotasunetik ateratzen ari direnen beldurra, langa oraindik oso behean dutena; eta borrokaren bideak ekarritako errepresio bortitzaren beldurra, eten barik markak hautsiz, langa gero eta gorago duena.

Euskal Herriak bizi duen egoera garratz hau ikusita burua jirabiran hasten zait sarritan: «Nora goaz horrela, bada? Ez al dugu bake eta justizia biderik topatuko? Abertzaleon batasun eta elkarrizketa bideak jorratzea inoiz baino garrantzitsua goa da gaur egun...» eta antzerako erreflexioak. Baina Santamas Egunean Murtziara bidean nindoan berriro, anaia bisitatzeraz, eta Gabon Gauean ama etxeko mahaiaren epelean egon beharrean Udaletxean zegoen barauan, hori bai - eskerrak!- amen elkarrekiko elkartasunaren berotasunean. Eta lagun bizkaitar batekin berbetan egon nintzen Gabonetan, bisita baten egon zela eta preso gaizki ikusi zuela, burutik joanda, eta... Orduan bestelakoak datozkit burura: «Ezetz, herri honetan ez dela bakerik sekula santan izango horrela jarraitzen badugu, hau ez dela justua eta ezin dela isilean sofritu, bakarrik sofritu. O jugamos todos o rompemos la pelota...». Zurrumbilotik ateratzeko hoztasuna mantendu beharko da eta horretarako daude politikoak, baina mugi daitezela, bestela berotasunak guztiok irentsiko gaitu eta. Sufrimenduak ez ohi du begirik, bihotza baizik, beroaz ulertzen du, ez hotzaz. Errespetoagatik, duintasunagatik eta legeak hala diolako, gure senide presoak Euskal Herrian gura ditugu! Ah, ahazten nuen: ez dugu preso politikoen senide izatea hautatu, tokatu egin zaigu.

XABIER LETONA

USTEAK USTE

INUXENTEEI

Zorionak guztioi, bai zorionak. Ez Gabonak edo Eguberriak ospatu berri dugulako, ez ere urte berri? bat hasteko atarian gaudelako, ez. Nire zorionak ez doaz hortik, askoz ere maitagarri, goxoagoak izan nahi dute, inuxente guztiak zoriondu nahi ditut.

Urte osoan zehar makinatxo bat inuxentada jaso ondoren (bakoitzari birpasotxo bat ematea gomendatuko nioke ea zer nolako zerrenda ateratzen zaion ikus dezan), azkenean, urte bukaeran ez bada ere, geure eguna ospatzeko aukera dugu. Eta ez edozein garaian, ez. Urtero bezala denok zoriontsu, mahai gehienak janariz gainezka, ume guztiok jostailuz josita, nagusiok ere geure oparituarekin, hango argi ditziratsuek, hemengo apaingarri dotoreak, luxozko produktuak nonahi, jende guztia pozaren pozez agertzen edo agertu nahi dugun egun hauetan, horra non, feria honen erdi erdian, zer eta, inuxente eguna agertzen zaigun.

Egia esan hainbat ospakizunen erdian agertzen zaigunez ez dugu, nire ustez, behar bezala ospatzen. Are gehiago, badirudi komunikabideen esku utzi dugula inuxentadak egitearen monopolioa ere, eta ba beno, komunikabideetan urtean zehar ere nahiko inuxentada irakurri eta entzuten ditugu, edo bestela esan, beste batzuk inuxentada gatazke erabiltzen dituzten tresnak izaten dira.

Horregatik inuxente eguna errebindikatzen dut, urtean zehar inuxenteak geu bagara, egun honetan, horretaz gain, inuxentadaren bat egiteko gauza izan gaitzen. Horregatik, hasieran bezala, zorionak inuxente guztioi, eta aurtean berandu harrapatu bazaitu, hasi datorren urterako inuxentada pentsatzen.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

TXIKILANDIA

96



URTARRILAK 2,3,4 eta 5
MUSAKOLAKO KIROLDEGIAN
ORDUTEGIA GOIZEZ : 11-2
ARRATSALDEZ : 4-8



ARRASATEKO
UDALA



La Marne taxia • 1914




Laguna • 1994



Megane • 1996

Iragana,
Oraina eta
Etorkizuna.



MECA

Egun hauetan MECAn
1906. urtetik 1996.

urterainoko miniaturako auto
guztien erakusketa ikusteko
aukera izango duzu. Zatoz!

URTE BERRI ON!

URTARRILA egunez egun

- 2-5/** Txikilandia Musakolan, 2.000 ume inguru, aurreko urtean baino gutxiago.
- 3/** ONCE saria Erguina, 50 milioi Erregeen kabal-gatarekin batera.
- 4-22/** "Museo industrialia sortzeko bidean" erakusketa Monterronen.
- 6/** Virginia eta Patricia Esparza ahizpen emanaldia Amaian.
- 10/** Emakumearen egoera sozioekonomikoari buruzko ikerketa egitea erabakitzen da, ekainera arte 380 emakumeri galderak egingo zaie.
- 11/** Jubilatutako etxeek kultur egitarau bateratua antolatzen dute.
- Urbina-Maltzaga eta Gaizka Aranegi AUKEA sarien irabazle.
- Lurrats Elkartea sortzen da, oinezkoentzat eta txirrindularientzat Maltzaga-Urbina egiteko.
- 12/** Babes-Etxea zer eta zertarako den azalduz 8.000 inprimaki banatzen ditu Emakumearen Kontseiluak.
- 13/** Geldialdi baten ondoren Gaztetxean hile osorako ekitaldiak aurkeztu ziren.
- Fray Rufinoren urrezko eztaiak.
- 14/** Maltzaga-Urbina autopistaren alternatibak erakusketa Sebero Altuben.
- 15/** Espainiako Orkestra Nazional Gaztearen kontzertua Amaian, 105 musikari.

- Al-Andalus Batzar Orokorra, Musakolan lokal berria erosteko erabakia.
- Dabid Arzamendiri omenaldia parrokian 1932az geroztik egindako lanagatik.
- 16/** Esther Larrañaga ingurugiro kontseilari izendatu.
- 16-19/** Ingurugiroari buruzko mintegia San Viatorren, eztabaidak eta hitzaldiak 4 egunez: "Enpresak eta ingurugiroa", "Ekoauditoreak, ekotiketak eta merkatuaren beharrak",

"Delitu ekologikoa eta enpresa", "Euskal industria eta ingurugiroaren desafia".

- 17/** "Alokairu legea" liburuskak banatu KIUB-en
- 18/** Biztanleria datuak eza-gun: guztira 24.787 bizilagun, aurreko urtean baino 270 gutxiago.
- 19/** Fagor Sistemasek Baionako SEI informatika ekipamendu enpresa erosi.
- Parrokiarako obretarako jendearen dirulaguntzekin 49 milioi jaso.

- Fagor Electronicak 50 milioiko depuragailua erosi.
- 20/** Udal-aurrekontuetarako 40 milioi pta. gutxiago Diputazioetik.
- 20/** Itsu baten amaren eskariz semaforoetan zarata ateratzeko tresnak jartzea erabaki zuen Udalak.
- Meho Kodroren bisita Arrasatera.
- 23/** Langabetu kopuruan, 93akiko beherakada egon dela jakiten da, 1.327 orduan eta 1.280 94aren bukaeran.
- 24/** Erreakzioak Ordoñezen hilketagatik.
- Gurutze Gorriak 1.398 zerbitzu aurreko urtean.
- 25/** Pilota taldeak txapelketetako partiduak Amaion jokatu behar, hemengo frontoiek ez dute eta araudizko neurririk betetzen.
- 26/** 20 milioi Zaldibarren parke berria egiteko.
- 27/** Maskarada taldearen "Monstruo sakratuak" Amaian.
- 29/** San Felipe Apostol elkarteko batzar baikorra, ingurukoei ere bazkide egiteko aukera ematen zaie.
- Anartz Azkarragak Gipuzkoako txapelketan urrea eta Euskadikoan zilarra lortzen du pisu jaurtiketean, marka ezarriz, 11.82 metro.
- 31/** Nitxoak falta eta panteoiak sobra San Kristobalen, 256 eta 348.



ZERRAJERAREN GORABEHERAK

Zerrajerako gaiak garrantzia berezia izan zuen hilabete honetan. Zubizarreta kontsultora bihurtu zen Zerrajeraren zuzendaritza hartu zuen. Langileei galdeketa egin zitzaion, Zubizarretak egindako plana onartzen zuten edo ez ikusteko. Langileek baiezkua eman zuten eta proposamenak aurrera egin zuten.

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

GORKA
ILEPAINDEGIA
SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

OTSAILA egunez egun

- 1/ Arrasate Irratiaren lehen frogak.
- Eskualde Ospitalak nota txarra osasun zentroei buruzko ikerketa batean Eroskiren arabera.
- 2/ Orain gutxi aurkeztu Jose Luis Ormaetxeak "Arrasateko toponimia" lana, 2.300 lekuren deiturak betiko gordez.
- 3/ Larrialdietarako udal zerbitzua sortzeko nahia plenora eramaten da. Mahai gainean uzten da.
- "Movimiento Gnóstico Cristiano Universal de España" suntsitzailea zen sektak Arrasaten finkatu nahi izan zuen. Talde honek hitzaldiak emateko baimena eskatu zuen, baina ukatu egin zitzaion. Uribe Auzoan lokala alokatu zuen eta hitzaldiak ematen hasi, baina lizentziarik ez zuenez debekatu egin zitzaion.
- 3-8/ Corazón de Encina elkartearen Estremadurako artisautza eta elikadurari buruzko erakusketa.
- 4/ Sta. Ageda bezpera.
- 5/ "Aulas Ensembles" piano eta haizezko kamara taldearen emanaldia Amaia antzokian.
- Ejerzitoarekin kolaboratze-ari erezkoa Udalak, insumisioaren alde.
- 6/ Andikano Jauregia berrizatzeko akordioa Diputazioa, Udala eta jabeen artean, 11 milioi ingurulo aurrekontua.
- 7/ "Zaborraren problematika aztertzen" kanpaina martxan maiatza arte.
- Auzoetako bideei buruzko ordenantza berria prest Udaleko Hirigintza Sailak.
- Inñurtegi anaien Gailurretan erakusketa Monterronen.
- 8/ Bertso-Eskola sortzeko deialdia AEDk. Hilean bertan martxan jarriko zen,

- 35 lagunek osatuta.
- 9/ Agustin Markaide Eroski Kooperatibako zuzendari berria izendatu zuten.
- 10/ "Arrasate gure herria" liburuaren bigarren argitaldaria. 1.000 ale gehiago, gaztelera, ingelesa eta frantsesa ere erabiliz.
- 11/ Isabel Gallastegi EAtik eta Ignacio Jimeno PSOE/EEtik hautagai alkatetzarako.
- Antzerki taldea sortzeko gogoia kaleratu AEDk.
- Ebentualak enpresa pribatuen bidez egindako kontratuak salatu kooperatibetan. MCC egoera konpontzeko proposamenak ikertzen.
- 12/ Musakolako igerilekuaren garbiketa sakona, 20a arte itxita.
- 13/ ATBren bostgarren urtebetetzea.
- Torturaren aurkako eguna, enkartelada Seberon eta aste osoan zehar piztuta egon zen suziria.
- 14/ Amodiozko gutunen sari-banaketa Bergaran, Maider Osa arrasatearrak irabazi zuen.

- Udalak Lan eta Gizarte Segurantzako inprimakiak euskaratu, langileen gestioak euskaraz betetzeko aukera sortuz.
- 15/ Euskadiko Kutxak lehen aldiz bulego bat arratsaldez irekitzea erabakitzen du, Iturriotz kalekoa.
- 16/ Enpresa Berriztatzaileen Zentroak, UCEMi erositako 15.000 metro karratu beteko ditu.
- Bi hilabeteko geldialdiaren ondoren zine-kluba berriro ikusgai.
- Elizarteko biblia euskaratuaren aurkezpena Monterronen.
- Oldartzen eta Iratzar txostenen aurkezpena Arrano Elkartearen Astebete beranduago bozketan Oldartzen aukeratu zen, %81a alde.
- 17/ Bederen 1, taldearen "Errenta" lana Amaian.
- 18-19/ Atzeratuendako musika sistema ikastaroa, "Aschero" izenekoa, 45 lagunena partaidetzaz.
- 19/ Corazón de Encinaren Batzar Orokorra.
- 21/ Ikaspilota Monterronen, pilotarien erakusketa ibil-

- taria.
- 23/ EHUak Ikasle Egoitza Nagusi izendatzen du Biteri Egoitza, EHUra atxekitako lehena.
- AEDren Batzar Orokorra.
- 24/ MCCren kongresoa.
- Fagor Automatioken 2 delegazio ireki, Sao Paulon eta Los Angelesen, kontrol numerikoak eta bisualizatzailek saltzeko.
- Lurperatu zirenetik 10 urte baino gehiago pasa zenez, 200 nitxo hustu, eguraldiaren ondorioz momifikatutako hilotz ugari atereaz.
- EBaren zerrendaburuaren berri, Joseba Ugalde.
- Dorletako txirrindularien aurkezpena, 45 txirrindulari.
- 25-26-28/ Haratuzteak.
- 27/ Eroskik Roneoko lantegi zaharra erosten du.
- 28/ Scanner berria erosten da Ospitalerako, 43 milioi-koa.
- 28/ Gazte Zerbitzuko datuak: 5.446 bisita iaz, hezkuntza eta aisialdi gaiak gehienbat.



AEDtik TALDE BERRIAK
AEDren barruan
aldaketa nabarmenak
gertatu ziren hilabete
honetan. Izan ere, garai
batean beste lan-sail
batzuk egin zuten
bezala, Ekin emakume
taldeak eta Txatxilipur-
dik berezko egitura
sortu eta AED elkarte
utzi zuten. Aipatutako
talde biak, bakoitzak
bere aldetik, eraketa
batzarra eginez beraien
helburuak erabaki
zituzten.

MARTXOA egunez egun

- 1/ AED gazte asanblada eratzekotan dagoenaren berri. Gaizki ulertuak egon ziren, AGAKOren tokia hartu nahi zuela pentsatu zen eta, baina helburua gazteen artean euskara sustatzeko talde bat osatzea zen.
- 3/ "Todos culpables" Tanttaka taldearen emanaldia.
- 5/ Bide zaharrak ikertzeko lana martxan.
 - Bailarako andaluziarren VI. eguna, ehundaka lagun Musakolan.
- 6/ Zenbat ur kontsumitzen den jakiteko eta ur-sarearen kontrola eramateko, Telekontroladore sistema jartzea erabaki Udalak, 40 kilometroko tuberiak zaindūz.
 - Ingurugiro kabina Lau Bideko aparkalekuaren ondoan.
 - Musika tresnen erakusketak Monterronen, Lorentxo Altubek jarrita. Berak egindako lehen arpa ikusgai.
 - Auto ilada luzeak saihesbidean egondako lur-jauziaren ondorioz.
- 7/ Txatxilipurdiren lehen Batzar Orokorra, egitura propioa sortuz.
- Donostiako Entzutegiak 14 urteko gartzela-zigorra eskatu bi arrasatearrentzat, manifestaldi baten ondoren banku bati sua eman ziotela salatuz. Egun batzuk beranduago jakin zen absoluzio erabakia.
- 8/ Emakumeen Nazioarteko Eguna, hitzaldiak, manifestazioa etab.
- 9/ Epidural zerbitzuaren berri jakinarazi Ospitalak.
- 10/ Ume kopurua %37an jaitsi Deba bailaran, orain 10 urte baino 4.416 ume gutxiago.
- 11/ Herriko zarata-kutsadura eramangarria 94an



MUSIKAREN PROTAGONISMOA

Kulturak zail har dezake protagonismoa hilabete oso bateko gaien artean, baina martxoa berezia izan zen arlo honetan. Alde batetik opera iritsi zen Arrasatera lehenengoz, Ostravako txekiarrek La Traviata eta Otelo antzeztu zuten; bestetik, nazioarteko folk asteburua burutu zen puntako taldeen partaidetzaz. Aurrez ekintza biak pareko garrantzia zuten, bakoitzak bere arloan, baina arrasatearren erantzuna erabat desberdina izan zen, operak arrakasta itzela lortu zuen bezala, folk-asteburuan ez zen apenas girorik egon.

egindako ikerketa baten arabera.

- 12/ Gipuzkoako Trialsin Txapelketa Udalan.
- Korrikaren ekintzen hasiera. Korrika bera "Jalgi hadi euskaraz" lemapean pasatu zen 23an, jende ugariaren partaidetzaz.
- Hamasei bikote Leintzen burututako emakumeendako lehen mus txapelketan. Aurrez ikastaroa egin zuten.
- 14/ Polizia Nazionalak bi lagun atxilotu eta Donostiara eramán. Komisaldetik pasa ondoren libre utzi zituen. Salaketa eta elkartasan manifestaldiak egin ziren.
- Maltzaga-Urbinaren aurkako alegazioak aurkeztu Haran Bizia taldeak Sodu-

peri.

- Euskararen irakaskuntzaren aldeko sentsibilizazio kanpaina abian Udala eta AEDren artean, D ereduaren alde aurrematrikulan.
- 200 lagun inguru kotxea utzita baja eman barik. Udalak azken erreziboa ordainarazi nahi eta kontua horrenbestez uztea.
- 15/ Aldain panteoiak dituztenak hilerria berriro irekitzea eskatuz mozioa aurkeztu Udalari.
- 16/ REMARi dirua eskatzea debekatu Udalak.
- 17/ Miserableak ikuskizuna azkenengoz Arrasaten, Bergarako Musika Eskolak eskainita. ETBk grabatu egin zuen.
- 18/ J.M. Loiti EAJko alka-

tegai.

- Txomin Iturberen omenaldian, Xabier Zubizarretaren aurkezpena HBko alkategai bezala.
- 80 ideia jaso Udalak plan orokorren inguruan.
- Epeleko zabortegeak bi urte. Denbora horretan 64.400 zabor tona bildu.
- 21/ Harreman taldeak "Hasi lanean" 3. munduarekiko elkartasan kanpaina abian jarri.
- Sindikatuak CEI bat sortzearen alde.
- 22/ Hezibideren Batzar Orokorra.
- EKIk ikerketa epidemiologikoa eskatu AKEIko errezentruarentzat, asko kutsatzen duela salatuz.
- 23/ Euskarari buruzko azken datuen arabera euskararen presentzia bikoiztu azken 8 urteotan, erabilera berriz %28aren ingurukoa da.
- Baserritarrei bideak auzolanean konpondu eta ordaintzeko proposamena.
- 24/ Bideoteka zerbitzuaren inaugurapena Monterronen, 500 bideo inguru.
- 26/ Mankomunitatearen aurrekontuak onartu: 795.944.000.
- Mankomunitateak taberna eta dendetan kartoia eta beira jasotzeko plan pilotari hasiera eman.
- 27/ Lantegi Eskolak martxan segitzeko hitzarmen berria sinatu.
- 28/ Eraso Herriko Etxeari.
- 30/ ARKOren Batzar Orokorra, inbertsioak egin eta egoitza aldatzeko lehentasunak.
- Udalan elurzulo bat eta lau karobi zaharberritzeko erabakia auzolandegiatarako.
- S. Juan Bautistaren 1762ko irudia berriztea erabaki Udalak.

APIRILA egunez egun

- 1/ Lagun Aroren Batzar Orokorra. 94ko irabaziak 11.825 milioi.
- 2/ Goikobaluk "Euskaldunon Kantak" disko konpaktoa aurkeztu. Jende ugari aurkezpen kontzertuan.
- Euskadiko Judo Txapelketa Arrasaten, senior eta 17 urte azpikoentzat. Itziar Zabala arrasatearrak urrezko domina eskuratu.
- 3/ UGTko Gipuzkoako 60 arduradun Arrasaten, kongresurako ordezkariak aukeratzeko.
- Jose Mari Mendizabal, Leintz Bailarako artzipreste, hil zen.
- 4/ Haran Bizia taldearen hitzaldia, Urbina-Maltzaga autopistaren egitasmoaren inguruan.
- 5/ Matias Prats eta Pedro Subijana Arrasatera etorri, Fagor Elektratresnako saio bat egitera.
- 7/ Galiziarrek, "Do Dia Da Galiza", ekitaldiz betetako astebukaera hasi.
- Lantegi Eskolak hirugarren proiektua aurkeztu. Helburua: enpresa ekintzarako zentroa eraikitzea.



TRENA MINTZAGAI

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak antolatuta, apirilaren 28tik 29ra trenbide proiektuari buruzko topaketak burutu ziren Arrasaten. Euskal Herriko eta Estatuko jende asko etorri zen topaketan parte hartzera.

- 8/ Arrasate Musikaleko Kamara Orkestraren aurkezpena.
- 9/ Arrasateko eskubaloitaldeak partidu erabakiorra Lanzaroten, jeitsiera fasea jokuan. Gol bategatik galdu arren, lehen mailan jarraitzea lortu.
- 10/ Goio Etxabe arrasatearra atxilotu Ertzantzak, ETako komando legal bateko kide izateko akuzaziopean.
- 11/ Udal aurrekontuak onartu, PSE-EE alderdiaren kontrako botoekin, Aitor Orobengoaren abstentzioarekin eta HB, EAJ eta EAren aldeko botoekin.

- Aurrekontu orokorra: 2.804.781.068 pta.
- Biztanleriaren gorabeherak ezagutzera eman udal pleanoan: 93an, 92an baino 26 ume gutxiago jaio eta 18 lagun gehiago hil.
- 13/ Xabier Arzallusek egoera politikoari buruzko hitzaldia eman Batzokian.
- 25/ Deba Garaiko suhiltzailer bolondresen aurkezpena. Taldea 25 lagunek osatzen dute.
- Arrasateko udaleko langileek asanblada egin lan baldintzak negoziatzeko. EUDELEk soldatetan %3,5 igotzea nahi baina sindikatuak ados ez.
- 27/ RIPEk zuzeneko diskarren aurkezpena egin. Hiesak jota hildako lagunak omentzeko egin zuten diska.
- Iñaki Uria, Euskaldunon Egunkariako Kontseilari ordezkaria Arrasatera etorri Egunkaria egunerako laguntza bila.
- 29-30/ Urbina-Maltzagak EBA ligan jarraitzeko txartela lortu zuen Leonen. Basconia Taugres taldearekin filiala izateko akordioa ere sinatu zuen.

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58

YOSU HERMIK
VENTANAS AISLANTES s.l.

Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

MAIATZA egunez egun

- 1/** Langileen Eguna. Deba Garaiko sindikatuek hiri-buruetako manifestazioetara joateko deia egin.
- 3/** AEDren ekimenez abizenak euskal grafiara aldatzeko kanpaina hasi.
- 5/** Fagor Arrasatek, Automotonek eta Elektronikak Batzar Orokorra egin. Fagor Arrasatek ezik, beste biek irabaziekin bukatu zuten 94a.
- 6/** Arrasateko Alkoholiko Anonimo taldeak 20 urte bete zituen.
- Hies-ak jota hil zen Jose Ramon Hermida, "Kermiren", omenezko festa.
 - San Frantzisko Xabier: kasitolak antolatuta, Deba Garaiko eskoletako abesbatzen VII. topaketak. 713 ume kantuan.
 - Bera zen mendi astea hasi. Ekintza aipagarrienak: Leintz Bailarako 8. itzulia, mendi istripuen mahaingurua ATBn.
- 8/** Ucem Cerrajera eta Transformados Metalicos enpresetako langile gehienek Zubizarreta Kontsultorearen proposamena onartu.
- San Isidro elizaren 50. urterrena ospatzeko ekitaldiak hasi. Setienek meza nagusia eman zuten 15ean.
- 9/** Soldadutzarekin ez kolaboratzeagatik Donostiako Fiskaltzaren salaketei ez erantzutea erabaki zuen Xabier Zubizarreta alkatetik.
- 10/** Jon Salaberri hil zen Hies-ak jota. 34 urte zituen.


- AEDk antolatuta, Arrasateko udaleko hizkuntz politika baloratzeko mahainguria. Udaletxera alderdi guztiak zeuden deituta, baina EAJ eta PP ez ziren agertu.
- 12/** Musakolako jaiak hasi. Urtero moduan hainbat motozale hurbildu zen.
- 13/** Arrasateko EAJk programaren aurkezpena egin. Roman Sudupe izan zen ekitaldian.
- 14/** Arrasate-Oñati herri lasterketaren XIII. edizioa

korritu zen.

- 15/** Lazo urdina jarri Udaletxean, Aldaiaren askatasuna eskatzeko.
- 16/** Zutik-ek kanpainaren aurkezpena egin.
- HBren mitina, Xabier Zubizarreta eta Itziar Aizpuruaren eskutik.
- 17/** MCCk burtsan inbertituko duela jakinarazi.
- 18/** Fagorreko batzar orokorra, 94an 2.400 milioi irabaziak.
- 20/** Arrasateko trikitilari eskolako partaideek urte-

roko jaia burutu.

- Mondrak denboraldiko azken neurketa jokatu Elgoibarren.
- 22/** EAKo Patxi Ormazabalak etxebizitza sozialeari buruz hitzegi zuen.
- 23/** Enrique González, EBko koordinatzaile orokorra etorri.
- 24/** PSE-EEren mitina. Guillermo Etxenike diputatua, Ana Miranda Eurodiputatua eta Mario Onaindia senatorea aritu ziren hizlari.
- Udalarri ingurugiroaz arduratzen hasiatea eskatu zion EKIk.
- 26/** Kirol proiektuaren amaiera ekitaldia. 1.000 gaztek parte hartu dute 94-95 ikasturtean.
- 28/** Udal hauteskundeak egin ziren. HBk 6 zinegotzi lortu zituen, EAJk 5, PSE-EEK 4, EAK 3, EBk 2 eta PPK 1.
- 28-29/** Goikobalu abesbatzak eta Errusiako orkestra nazionalak Carmina Burana obra eskaini. 160 ahotsek abestu zuten eta arrakasta izugarria izan zen.
- 30/** Eroskiren ECO-Kontsum erakusketak atek ireki Lau Biden.
- 31/** Baserri auzoetako bide zaharrei buruzko lana aurkeztu Gotzon Arzelus-ek. Herrian dauden eta izan diren bideen izenak jasotzen dira lanean, eta zertarako erabiltzen ziren ere aipatzen da.



MITINEN HILABETEA

Alderdi politikoetako arduradun nagusiak hurbildu ziren herrira, udal hauteskundeetarako botoa eskatzera.

Guztiak emaitza onak izango zituztela iragartzen zuten. Hori frogatzeko maiatzaren 28an udal hauteskundeak egin ziren. HBk 6 zinegotzi lortu zituen, EAJk 5, PSE-EEK 4, EAK 3, EBk 2 eta PPK 1.

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

**Bergarako
BEDELKAR elkarteko
108 dendariak
500.000 pta.
zozketatuko
dituzte.**

Zatoz eta zorte on!

EKAINA egunez egun

- 1/ Jonan Fernandez, Elkarriko koordinatzaileak, hitzaldia eman zuen. Entzule ugari izan zen.
- 2/ Lapurrak Maxian, 9 milioiko lapurketa.
- 3/ Lurrats-ek antolatuta, Arrasate-Oñati-Arrasate bizikleta martxa bidegorriaren alde. 400 parte hartzaile.
- 4/ Eskoriatza-Arrasate kro-sa korritu zen.
 - Jon Salaberriren erraustak zabaldu zituzten Leintz-Gatzagan.
- 5/ Logotipo berria aurkeztu zuen Udalak.
 - Eudelek eta Arcepafek (Udaletxeko langileen negoziatorako mahaiak) akordioa lortu zuten. Langileen soldata %3,5 igoztea erabaki zuten.
- 7/ Ertzantzak Jon Gomez, "Bodegas", intsumiso arrasatearra atxilotu zuen.
- 9/ UGTren egoitza berria inauguratu.
 - Negu Gorriak-ek kontzertua eman Gaztetxean.
- 10/ AEDk antolatuta, "Arrasate Kantari" kantu jaialdia.
 - Hiru emakume arrasatearrek istripua izan zuten



HIRUGARREN ALDIZ XABIER ZUBIZARRETA ALKATE Alderdiaren diziplinari eta itxura denez hitzartuta zegoen hirukoari uko eginez, bi zinegotzik zuri bozkatu zuten alkatea aukeratzeko maiatzaren 17an egin zen plenoan. HBko Xabier Zubizarretak alkateza eskuratu zuen, eta J.M. Loitiri boto bat falta izan zitzaion alkate izateko. Ondoren, zentsura mozioa aurkezteko nahia azaldu zuten alderdi bazuk baina oraingoz ez da halakorik gertatu.

Matiena auzoan, autoa trenbide erdian geratzean. Bat hil egin zen.

- II. intsumiso eguna.
- Zuloak talde beteteranoa Zaldirabar txapelketako ira-

bazlea.

- 11/ Egunkaria Festa Arrasaten. Euskal Herri osotik 20.000 egunkariazale hurbildu ziren.
- 12/ San Andres herri esko-

- lako 25. urteurrena ospatzeko ekitaldiak hasi.
- 13/ Emakumeen egoera sozio ekonomikoari buruzko datuak kaleratu. Emakumeek eurei zuzendutako bulegoa botatzen dute faltan.
- 14/ Azberen eskariz egingako lehen giltza elektronikoa aurkeztu zuen Ikerlanek.
- 15/ Ramon Jauregi, Lan eta Justizia sailburuak MCC bisitatu zuen.
- 16/ Arrasate Gida aurkeztu.
 - Edorta Aranek ekainaren hasieran "Gizarte eta nazio errepresentazioa telebista albistegietan" izenburuko tesia aurkeztu zuen Leioako Euskal Unibertsitatean.
- 23/ San Juanak hasi. Arrasateko kiliki eta erraldoien konpartsak hamar urte bete.
- 24/ Arrasate Musikaleko Bandak lehen kontzertua eskaini Arrasaten.
- 28/ Gay eta Lesbianen nazioarteko eguna ospatu zen.
- 29/ 133.697.805 pta. irabazi zituen arrasatear batek Loteria Primitivan.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
 Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

UZTAILA egunez egun

2/ Iban Learretari omenaldia AED, Murrukixo eta Besaidek antolatuta Udailaitzen.

5/ Lander Etxabe intsumisua atxilotu egin zuten epaiketara ez zelako aurkeztu. Atxilotu eta Martutenera eraman zuten.

1-15/ Zentsura mozioa uztailaren lehen hamabostaldian aurkez daiteke Arrasaten. EA, PSE-EE eta EAJk uko egin zioten HBrekin elkarriketatzeko izateari.

6/ AED elkarteak hiru auzo-landegi antolatu udarako. Lehenengoa Kanboko Xalbador ikastegian. Beste biak: Baigorri eta Garaion.

• Onceko saria Arrasaten. 175 miloi irabazi zuen hainbat arrasatearrek.

7/ Ukraniako dantza eta kantak Monterronen.

• Drogen erabilera okerraren eta narkotrafikoaren aurkako Nazioarteko eguna dela eta, drogen inguruko ekintzak Arrasaten.

13/ Lazo urdina Udaletxetik kentzeagatik, PSE-EEak HBren jarrera salatu.

14/ Udala eratzeko plenoa egin. Plenoan Udaleko gobernu taldea zein alderdik osatuko duten jakingozen eta Batzorde informatibo bakoitzean zein zinegotzi izango den. Hirukoak kontra bozkatuz gero, Udala erdi geldirik geratuko litzateke.

• 14 Uribarriko parrokia-

ko kanpandorreak gurtze berria izango du. Zaharra kendu egin dute eta berria jartzeko dirulaguntzen zain.

14-15-16/ Santamainako jaiak.

15/ Hiru arrasatear Madrilgo Saskibalo Campusean. Urbina Maltzagako Itsaso eta Ander Mallabiabarrena eta Roberto Gutierrez Adidas markak Madril antolatu uen saskibalo kanpusera joateko aukeratuak.

• Carolina Landriscini Nicanor Zabaleta beka eskuratu EEBBetan Txelo ikasketak sakondu eta hobetzeko aukera lortuz.

16/ Deba erreka berreskurapena eskatuz bizikleta martxa Debaraino.

17/ Lantegi eskolaren 3. proiektua. 56 ikasle Enpresa ekintzeterako zentroa eraikitzeke egingo dute lan datozen hila-beteetan.

19/ MCCk 5.000 milioi inbertituko Tafalla eta

Usurbilgo Luzuriaga enprezsan.

23/ Lantegi eskolakoek bigarren proiektua amaitu. Zubillaga eskola zaharra konpontzea zuten helburu.

• Karibeko saltsa eta erritmoak dira Arrasate Musika kaleko 16 kidek osatu duten taldearen inspirazioa. Gaur lehen emanaldia Belunen.

24/ Abizenak euskalduntzeko kanpaina oso arrakastatsua. 300 abizen baino gehiago aldatu ziren AEDko arduradunek diotenaren arabera.

• EAJ, PSE EE, EA eta PPren zinegotzien abstentzioarekin HB eta EBaren aldeko botoekin Batzorde informatiboak onartzen dira.

27/ Gipuzkoako Diputazioak ez du aurten Arrisku Soldata programa diruz lagunduko. Dena dela, Udalak emango ditu dirulaguntzak.

• Marta Izagirre 29 urteko atxabaltarra Arrasate Musika kaleko lehendakari berri izendatu.

• Inaxio Kortabarria 45 urteko arrasatearra Erreal Bko entrenatzaile berria 95-96 denboraldirako.

29/ Airtel enpresak telefono mugikorrekako estazioa jarriko du Kurtze txiki mendian udazkenean.

• Izazkun Murgia arrasatearra hil Landako urtegi. 46 urteko emakumea uretara sartu zenean sendu zen.



UDALEKU ARRAKASTATSUAK

Txatxilipurdik antolatuta udako udalekuei eman zitzaien hasiera uztailaren batean. Udaleku irekiak eta babylekuak jarri ziren abian. Udalekuak Txatxilipurdi, AED eta Udalak antolatu zituzten.

Jesus J. Giraldo

Liseriketa aparatua

• Lagun-Aro • PREVIASA • Foru Aldundia • Partikularrak


Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

Gabon jai zoriontsuak guztiontzat.

Loramendi kalea, 6 Eguzki dorrea, 2.B Tfnoa: 79 04 14 ARRASATE

ABUZZTUA egunez egun

- 1-15/** Arrasatearrei Iparraldea ezagutzeko aukera berria eskaintzeko Bizikleta martxa antolatuta AEDk eta Gazteria sailak.
- 2/** San Esteban jaiak Udalan.
- 4/** Ertzaintzak bi gazte atxilotu Arrasaten 40 gramo hatxisekin.
- 5/** Gazte ugari Udalak auzolandegietan.
- 7/** Uharkapeko horma babes-teko segurtasun neurriak jarri zituzten.
- 12/** Uribarriko alkatesak eta Elkarteak bat egin bide zaharrak berreskuratzeko. Andra Mari bidea mantendu nahi zuten. Ordenantza orokorra onartu izan balitz bide zahar hori desagertu egingo litzateke.
- 13/** Gutxiago kutsatuz produzitzeko plana hastekotan inguruko langietan.
- 15/** Termitek egurra jaten zutela eta, intsektu horien aurkako tratamendua egin zuten Monterrongo liburategian.
- 18/** Epeleko zabortegiari sua eman.
 - San Agustin jaiak Arrasaten.



AMERIKARRAK ARRASATEN

J.C Harris 26 urte eta 2,02 altuerako jokalaria amerikarra Urbina maltzagako lehen amerikarra izan zen. Harris taldeko beharretara ez zen egokitu eta denboraldia hasi baino lehen taldetik kanpo utzi zuten. Ondoren, Clinton Hotz ekarri zuten baina honek ere ez du sorterik izan eta Gabon ostean ez da Arrasaten izango.

- 23/** Ibai Arte elkarteak Udalarari salaketa jarri terrazendako baimena ez emateagatik
- 25-26/** Uribarriko jaiak giro

- onean ospatu.
- 27/** Jone Bergaretxe Uribarriko alkatesak 12 iturri aurkitu eta izendatu.
- 29/** Txirrinda martxa Arrasaten. Martxa ekologista

Urbina Maltzaga autopistaren kontra.

- 30/** Villa Arrasate futbol saria 3. mailako Aloña mendi talde Oñatiarrak eskuratu.



INGELESA IKASIKO DUT!!

Non? **CIMen**
Noiz? **Urtarrilaren 15etik aurrera.**
Nola? **Astean 3 orduko ikastaroetan, oinarrizko mailatik aurreratuenara.**

Eta **GABONETAKO** oparia: matrikula dohainik izena ematen duten lehenengo bostentzat.

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Araba Etorbidea, 4
Tfnoak. 79 01 32-79 65 54
20.500 ARRASATE

IRAILA egunez egun

- 1/** Asturiasen hildako meatzarien aldeko kontzentrazioa.
- 8/** Rosa Lasagabaster esku-baloiko entrenatzaile berria.
- 9/** Eugenio Uribarrenek Patxaran eta Baba izozkiak asmatu.
- 10/** Arantzazu eguna. Mila arrasatear inguru bildu zen Arantzazun. Herritarrekin batera Udalbatzako zinegotzi batzuk izan ziren mezan.
- Kalteak Monterronen. Hiru gaztek parkeko jarleku batzuk apurtu eta anfitroko eskenatokia hondatu. Galerak 75.000 pta.
- 12/** Gobernagarritasuna EAko zinegotzien erabakiaren zain. EAK baiezkoa eman zion HB eta EBrekin Udal Gobernuan sartzeko gonbitari. Baiezkoa eman eta gero, EAko Exekutibak Arrasateko zinegotzietan espedientea zabaldu zien. Berriro ezin osatu Udala eta zentzura mozioaren zain.
- 13/** Gutxiago kutsatuz produzitzeko plana hasiko da inguruko langietan.
- 14/** Garagartzako bidea zabaldu eta hobetzeko proiektua onartu Gipuzkoako Diputazioak. Garagartzatik Arabako mugara dagoen tarte konponduko da. 3km inguru, 260 milioiko gastua.
- 15/** Clinton Holtz amerikar berria Urbina Maltzagan.
- 16/** Al Andalus taldeak jaiak



MANKOMUNITATEAN HIRUKOA KONPONDU ZEN

Mankomunitatean Udalean ez bezala, hirukoak funtzionatu egin zuen eta aukeratu beharreko karguak EAJ, PSE-EE eta EAren eskuetan geratu ziren. Lehendakaria Jose Mari Loiti izandatu zuten, lehendakariorde Manu Villar eta diruzaina Esparza. Botazioa formula kargu bakoitzeko bozketa bat izan zen.

- di bat antolatu Hies Eki-menaren alde. 280.000 pta. atera zituen.
- 17/** Besaide eguna, eguraldi euritsua baina jende ugari.
- 16-17/** Uribarri Erguingo jaiak.
- 18/** Fase berrian sartu da Udal Egitamu Orokorra. Sei hilabetetan agiria bukatzea espero teknikoek.
- 19/** Gesalibar eta Garagartzako auzo alkateek eskola garraiorako egindako diru eskaera onartu ez Udalak.
- Udalak Arrasateko Institutoari 517.000 ptako diru laguntza ematea erabaki Bidean proiekturako.
- 23-24/** Lapurrak sartu Dragados enpresak Uharkapen dituen txaboletan.
- 27/** Gudari Eguna zela eta, manifestazioa Arrasaten
- Bi ezezagunek bi coctel molotov bota zituzten INEMk herrian duen bulegora. Sistema informati-boa guztiz hondatuta geratu zen eta bulegoko materiala kixkalduta.
- MCC-k "ereduzko 50 komunitateen" saria jaso.
- 28/** Arrasateko futbito taldea desagertu. Bere tokia Eskoriatzak erosi zuen
- Kontzertu egitarau aberats eta zabala Arrasate Musika Eskolaren eskutik iraila, urria, azaroa eta abenduan.
- Fertxu Rodriguez Arrate eskubaloitzaile taldeko jokalaria.

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

lurindegia perfumaria
ZARRAOA

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulak
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

URRIA egunez egun

- 3/ "Arrasate 94 Lehiaketak" liburuaren aurkezpena AEDren eskutik.
- 5/ Ederlanek Japoniako Produktibitatearen Institutuak ematen duen "TPM" saria jaso. Estatuan Ederlan da agiria duen enpresa bakarra.
 - Oliveri sailburuak MCCko kooperatibak eta Eskola Politeknikoa bisitatu.
 - Hiru hilabetez atzeratzen da Musakola aldeko hiri-gintzaren ordainketa.
 - Arrasateko Udalak AKEI erraustegiaren inguruko lursailetan azterketa epidemiologikoa egitea eskatu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.
 - Napartheid aldizkariaren ale berriaren aurkezpena Gaztetxean.
- 7/ Zaldibar Futbito Txapelketa hasi. 72 talde eta 1.231 jokalaria.
 - Aldaiko panteoien jabeek, arrazoi sentimentalak medio, euren nitxo zaharrrak kentzeko proposamenari ezetza eman.
 - Aretxabaletako 3. Mundu Taldeak antolatuta Arte Martzialen erakustaldia kiroldegian. Bildutako dirua Ruandara bidali.
- 9/ "Euskal Herria Askatu" lemapean kontzentrazioa herriko plazan.
- 11/ Ikerlanek esperimentu espazial batean parte hartuko. Tresnaren zati mekanikoa eta bisualizazio elementua egitekotan.
 - Bi langile arrasatear kale-razteagatik zigortu Egaralur S.M. enpresa.
 - Salto del Negron, Jaen eta Sevillako espetxeetan gose greban zeuden presoan aldeko manifestaldia. 250 lagun.
 - Antonio Canceloren, MCCko lehendakari berriaren aurkezpena.
- 12/ Udalaitez Eguna. 500



MARITXUREN KOKALEKUA ADOSTU BARIK
**Maritxu Kajoi egunak eta Errosarioko Amabirjina-
 naren kokalekuaren auziak protagonismoa hartu
 zuten hilabete honetan. Maritxu ohiko tokian egon
 zen urriaren 6an baina ondoren kendu egin zuten
 berriz ere. Jaiak 1.760.000 pezetako aurrekontua izan
 zuen eta amabirginak ez zuen miraririk egin. Aspaldian
 ez bezala, ez zuen euririk egin.**

- mendizale igo. Roberto de La Fuente "Risbi" eta Jose Mari Mendizabal apaiza omendu.
- ELA sindikatuak INEMeko zerbitzua Eibarrera eraman izana salatu. Arrasaten toki bat egokitu eta zerbitzu hori herrian eskaini dadila eskatu.
- 12-13-14/ AEDko Gazte Taldeak antolatuta "3 Handiak 3 Egunetan" mendi irteera.
- 16-29/ Valentin Aranaren margoen erakusketa Harresi Aretan.
- 17/ Bettina Smith mezzo-sopranoaren eta Ana Sanchez pianujolearen kontzertua Amaia antzokian.
- Ur Patzuergoak Urkuluko urtegiaren fluorazio frogak amaitzeaz. 70.000 pertsonendako ur fluoratua. Litro bakoitzeko 0.5 miligramo fluor.
- Urbina-Maltzagak bere lehen garaipena lortu
- Maristas de Burgos taldearen aurka.
- 18/ Erasoa Batzokiari. Lagun batek erredurak jasan.
- ONCEk 50 milioi utzi Arrasaten. 16.453 zenbakia.
- Merkatarientzako bulegoa berriz ireki.
- 19/ Arrasateko inguruetan espainiar ejerzitoaren presentzia nabaritu. Helikopteroak Arrasate gainean.
- Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorena alkatearen aurkako dilijentziantan hasi. Donostiako fiskaliak ejerzitoarekiko kolaborazio ezagatik salatu.
- 20/ AEDko Bertso-Eskolaren aurkezpena.
- "Gazteok Bizikletan" lehiaketan Jabier Ozaetak lehen postua lortu.
- Txileko Orkestraren kontzertua Amaia antzokian.
- Garraxi Isilaren kontzentrazioa ETAK hildako Angel Prieto poliziaren

- alde.
- 21/ HB eta EB-IU herri demokratizazioari buruzko adostasunera heltzen dira.
- 22/ Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken laurdenak Amaia antzokian.
 - Lurrats taldeak antolatuta bidegorriaren aldeko bizikleta martxa Osintxura.
- 25/ San Andres eta Musakolako auzokideak autobus geltokien gutxitzearen aurkako sinadura bilketari ekin.
- 25-26/ Emakumeari buruzko Pekingo Jardunaldiak buruzko hitzaldiak Emakumeen Asanbladak eta EKINEk antolatuta.
- 26/ Alkatea eta Pesako arduradunek bilera egin autobus zerbitzu berriaren inguruan.
- 27/ Ohiko eta ez-ohiko ple-noak: Udal zergak eta tasak % 3.5an igoko datoreen urtean. Hirukoak eta EBak mozioak aurkeztu INEMeko sabotai ekin-tza salatuz. Senideak mozia aurkeztu: presoan sakabanaketa gaitzesi eta udal ordezkaritza batek presoak bisita ditzala eskatu. Jendeak arraultzak jaur-ti.
- 73 arrasatearrek juratua parte hartzeko eskutitza jaso. Partaideek 9.300 pta. jasoko eguneko.
- 28/ Leintz elkarteak "Emakumeentzat 2. Mus Txapelketa" jokatu.
- Udalak Enpresa Ekintzarako Zentrua eraikitzeko proiektua Kudea enpresari adjudikatu.
- Geroa eta La Jacara antzerki taldeek "Por mis muertos" antzezlan eskaini.
- Arrasaten autobus urbanoa jartzeko ideia aztertu.
- 31/ Eskualde Ospitalak eskanner konputerizatu estreintzen du.

AZAROA egunez egun

- 1/ UCEMeko** lursailen salmenta hasten da. SPRi 5.136 metroko lursaila saldu bertan Enpresa Berrien Zentroa eraikitzeko.
- 3/** "Gozategiz Blai" emanaldia Amaia antzokian.
- "Eusko Korus" abesbatzak bi sari etxeratu Tolosako lehiaketetan.
 - "Borroka Eguna" Gestorek deituta. Bi manifestaldi. Ikasleek greba.
- 3-16/ Patxi Sanchezen** "Tanzania: Afrika Bizia" argazki erakusketa Monterronen.
- 4/ EKI** aldearen manifestaldia frantziar froga nuklearren aurka.
- 6/ Ertzantzak** kontrabandoko 16 tabako kaxa aurkitu tailer batean. 2.200.000 pezetako balioa.
- 6-17/ Eskaparatismo** ikastarua Ibai-Artek antolatuta.
- 7/ Debegasa** eta MCC elkarrekin instituzioen aurrean Maltzaga-Urbina proiektua gauzatu dadila eskatzeko.
- Udalak urteko milioi erdi kobratuko Airtel enpresari Kurtzetxikin antena jaritzeagatik.
- 8/ Jose Mari Loitiren** ize-narekin eskelak eta pasakinak agertzen dira.
- 9/ Aita Mennik** proposatu Eguneko Zentru Psikogeriatrikoa sortzea.
- 11/ EAJ, PSOE, EA, EB** eta PP alderdiek Loitiren aurkako mehatxuak gaitzetsi. HBk ez du idatziarekin bat egiten.
- 233 lan aurkeztu AEDko lehiaketetara.
 - ONCEren jaialdia kiroldegian.
- 12/ Omenaldia** Pedrotxori herriko plazan. Gose greba hasi 6 herritarrek.
- 13/ Estrella Ortiz** ipuin kontalaria haur liburutegian.
- 13-14-15/ IX. Familia** Astearen hitzaldiak.
- 16/ Udalak Zigarrolako** autobus geltokia jartzeko eskatu PESARI.
- 17/ Udalak** derrigorrezko fluorazioaren aurkako jarrera hartu.
- 18/ LABen** "Alarma egoera" kanpaina Arrasatera heldu. Argazki erakusketa jarri Seberon.
- 19/ Corazon de Encina** elkarrearen egoitzaren bigarren urteurrena.
- Eskola Politeknikoak "ISO 9.001" kalitate agiria lortu.
- 20-26/ Lumazko** Idazkeraren erakusketa Monterronen.
- 22/ Eusko Jaurlaritzako** Kultura Sailak "Euskal Monumentu" izendatu Monterron, Udaletxea eta San Frantzisko eliza.
- 23/ Hamalau** proiektu aurkeztu Autoenplegu programarako.
- 24/ Institutuaren** moda desfilea.
- Capilla Peñafloidak eta Arrasateko Ganbara Orkestrak Sta. Zezilia kontzertua eskaini parrokian.
 - PSOEek San Andresko autobus geltokia mantendu dadila eskatuz, Udalaren proposamenarekiko adostasun eza erakutsi.
 - Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta enkar-

telada Seberon.

24-25/ "Emakumeen presentzia Arrasateko Elkarrietan"

27/ Hies-Ekimenak Sentiberatze Ihardunaldiak hasi.

28/ Sarasua anaiek "Fauna Txiki bat" diskoa aurkeztu Donostian.

29/ Askagintzak antolatuta "Droga trafikoa eta Galindo sarea" hitzaldia. Txus Congil eta Pepe Rey hizlari.

30/ Markeliñe antzerkia Amaia antzokian. 700 ikaslek ikusi.

31/ Arizmendiarrera X. Lehiaketako sariak banatu. Javier Retegik hitzaldia eman.



ARGENTARIAREN AURKAKO SABOTAIA

Azaroaren 3a, Gestorak deituta, "Borroka eguna" izan zen. Bi manifestaldi burutu ziren eta ikasleek greba egin zuten. Gaueko 11.30ak aldera ezezagun batzuk koktelak bota zituzten Argentariaren sukurtsal berrira eta ondorioz, bulegoa eta gaineko etxebizitzak erre egin ziren. 12 familiek etxetik alde egin behar izan zuten eta alboko dendak ere kalteak izan zituen. Bizilagunek 21 denuntzia aurkeztu zituzten Ertzaindegian eta gaitzespen idatzi bat kaleratu zuten. Tentsioa nagusi izan zen ondorengo egunetan.

ABENDUA egunez egun

- 1/ Hiesaren Nazioarteko Eguna. Tunantes del Norte taldearekin kalejira, antzerkiak kalean, giza-katea eta Jon Salaberri omenaldia Herriko Plazan.
- 2/ Akordeoi Lehiaketak. 400 soinujolek parte hartu zuten.
 - Batzen plataformak antolatuta, Ruper Ordorika eta Javier Alvarezen kontzertua Amaia antzokian. 900 entzule.
 - PSOEek EBA salatu udal gestioen esperientzia eza eta ezjakintasunagatik.
- 6/ San Nikolas Eguna. Bolo-boloa plazan.
 - Etsaiak, Su ta Gar eta Txusma taldeak Gaztetxean.
 - Udalak Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko elkarlaguntza eztabaidatu. Egun batzuk beranduago onartu zen.
- 8/ Akordeoi Lehiaketak amaitu. Philippe Bourlois frantziarrak "Arrasate Hiria" lortu.
 - Udalak 2 milioiko isunak jarri Markoalde etxeetako arkitekto eta eraikuntza enpresei.



UMEZAINZAREN ZILAR EZTIAK

Abenduaren 16an Umezaintza sortu zenetik 25 urte bete ziren. Zilar Eztaiak ospatzeko ekintza egitarau zabala prestatu zuen Umezaintzak eta ekintza horiek abenduaren 5ean hasi ziren. Egundia 16a izan zen. Goizean umeendako jolasak egin ziren eta eguerdian Umezaintzarekin zerikusia izan duten guztiendako bazkaria Iturripen. 18tik 24ra Umezaintzaren 25 urteei buruzko erakusketa egon zen Monterronen.

- 12/ Umezaintzak antolatuta, "Umeak, kontsumismoa eta jostailuak" hitzaldia Monterronen.
- 14/ EBak HBrekin gobernuan jarraitzeko erabakia hartu.
- 15/ Arrasate Press aldizkariaren 300. zenbakia kaleratu.
- Kontxita Zarraoaren margo erakusketa zabaldu.
- 16/ Santamas egitaraua hasi.

- Hirukoak berak jarritako zentsura mozioa aurkezteko epea amaitu.
- 17/ Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko elkarlaguntza plana onartu.
- 20/ AEDko lehiaketan eta Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren sari banaketa Monterronen.
- Maritxu Kajoik kokaleku berria.
- 21/ Letoniako Orkestrak eta Goikobaluk kontzertua eskaini.
- EKI taldeak gabonetako kontsumismo eta gehiegikeriaren aurkako kanpaina hasi.
- 22/ Santamas Eguna. Ohiko giro ona eta jende pilo.
- Clinton Holtz Urbina Maltzagatik bota.
- Udalak Zaire, Bolibia eta Kubako 3 proiektuendako diru laguntza eman.
- Senideak-en enkartelada Arrano elkartearen parean.
- 24/ Senideak-ek antolatuta 24 orduko itxialdia pleno aretoan
- Txoronpio, Txoronpia eta Olentzero Arrasaten.
- 25/ Gabon eguna.



SIKOL

Olarte, 31
Tfnoa: 79 89 32
ARRASATE

Egun hauetan aukera itzazu opariak SIKOLEn eta zuk ere opari bat jasoko duzu.


BARRUKO ERROPA, GIZONEZKO, EMAKUMEZKO ETA UMEENTZAT.



URTE BERRI ON!



Maalako Errabala, 13
Tfnoa: 79 92 76
ARRASATE



OKENDO
KIROLAK

Nolakoa izan da urtea?

KULTURA

Ondarea zainduz

1 995ari kultur begirada ematerakoan kultur ondarearen zaintzea eta zahar berritzea azpimarratu behar dut lehendabizi, ahalegin berezia egin baita aurten herria ederrago mantendu eta gure historia ezagutarazteko, horra hor: Parrokia, Santa Barbarako gaztelua, San Frantzisko elizako erretaula, Mendia eta Andikano Zelaa jauretxeak, Maalako Errebalean Seber Altuberen jaiotetxea... Bada hala ere, beste monumentu bat kultur premia oso garrantzitsuei erantzuteko zahar berritzeko berebiziko beharrekina; Ospital zaharraz ari naiz, elkarte zenbaiten behin betiko egoitza falta konponduko duena.



Herriko kultur elkarte eta talde mordoak azpiegitura eta ekonomi baliabide justuekin jardun arren urteroko aktibitate, sarri ixil, eta ugarien lorratza utzi digute.

1995a Amaia antzokirako ere urte gogor bezain emankorra izan da, sendotzekoa, espazioaren balioaniztasuna egokia dela frogatua geratu baita. Jaiei dagokienez aurten San

Juanak aste buruan burutu diren neurrian benetan arrakastatsua suertatu dira, baina datozen urteotarako zenbait arlo izango dira hobetu eta landu beharrekoak.

*JON GARAI.
Kultur Teknikaria*

POLITIKA

Hauteskundeen haritik

Urte politikoa udal hauteskundeenpean egon da. Gasteizko itun hirukoitza Udaletara zabaltzeko zegoen asmoa Arrasaten ere gauzatuko ote zen, horixe kanpainako mintzagai nagusia. Zerrendak egiterakoan, hautagai ezagunak eta sorpresa gutxi. Deigarriena, sozialisten alkategaia, Jimeno, alderdiratu berria eta euskalduna.

Emaitzetan, sozialistek galdutako bi zinegotziak eta EUEK utzitakoa IU-EBra bi eta PPra bat joan ziren. Gasteizko hirukoitzak gehiengoa bai, baina berriro kale egin eta Xabier Zubizarreta hirugarrenez alkate.



Zeresan ugari eman du kontu horrek, politika orokorreko gai ere bilakatu da, baina dagoenetan gera daiteke, samur, agintaldi osorako. Geroak esango.

INEM eta Argentaria, bi bulego kiskaliak. Kale giroa zatartuz doan seinale omen. Ezin ahaztu, ordea,

Arrasateko preso batzuk oso aspaldikoak direla eta gai honetan denborak ez dituela zauriak osatzen, gaiztotzen baizik.

Eta, Arrasaten ere, bakearen aldeko jarrerak nabariagoak egin dira, urtean zehar.

*MIKEL IRIZAR.
Arrasate Presseko kolaboratzailea*

EUSKARA

Etorkizun euskaldunaren aldeko lana

9 Seko amaiera iritsi da eta herrian, urtean euskarak zer nolako ibilera izan duen azaldu nahi dizuegu. Irakurri duzue kaleetan egin diren neurketek diotena: Euskararen erabilerak gora egin duela. Harro egon gaitetze, eta gure ardura horretan jardutea denez hemen aipatuko dizuet hitz gutxitan AEDren inguruan egin diren aldaketak euskararen presentzia ahalik eta leku gehienetara hel dadin.



Urte hasieran AEDko Txatxilipurdik eratze batzarra egin eta elkarte autonomo egin zen. Horrela bere zerbitzua, zabaldu eta arreta handiagoa eskainiz hobetzeko asmoz. Zabaldu

ziren auzoetako Gazte-Txokoak, Txatxilipurdiren eskutik. 95ean lortu zen aspaldiko ametsa, aterpetxea. Zenbait ges-

tioren ondoren lortu zen. Zenbait konponketa eta txukuntze lanak auzolanean egin eta gero uda aldean erabiltzeko moduan egon da, jende askok ezagutu eta bertan gozatzeko aukera izan duelarik.

EKIN emakume taldea ere 95. urtean autonomo egin da. Bere bidean jarraitzen du hitzaldi eta hain arrakastatsua diren ikastaroak antolatuz, dantza ikastaroa adibidez.

AEDk antolatu ditu Kultur Tailerrak, komiki, ipuin, bertso eta antzerki taldeak. 96an ere jarraituko dugu honetan. Asko izan dira "Abizenak Euskal Grafiara" aldatzera hurbildu direnak ere. Arrasate Kantari ekaina aldera antolatu zen, bertan arlo desberdineta eta oso maila oneko kantariak izan ziren.

Beste asko izan dira euskararen erabilera zabaltzeko asmoarekin antolatutako ekintzak. Baina, lerro batzuk besterik eskaini ez didatenez AEDren Urte Berri Euskaldunagoa desiatzea baino ez zait geratzen.


MIREN ARREGI. AEDko Lehendakaria

KIROLA

Motel, motel

Aurten gure helburua UEFAn sartzea" esan zuten denboraldi hasieran Atleticeko Arratek eta Realeko Urangak. Asteroko errealitateak, besterik dio; batzuk erdigitan erdi-ilunpetan dabilta; besteak pozik zulotik argi izpiren bat ikusten duten bakoitzean. Hemengo kirol taldeak bide beretik doaz:

1) Kontuan hartuta oso talde gaztea daukatela, futbolarien helburua sailkapeneko erdialdean ibiltzea zen. Azkenurrekoak dira. Okerragoa dena, ez dute gorantz joateko moduko jokorik erakusten.



2) Saskibaloikoek aurten eske-mak apurtu zituzten, Taugresekin hitzarmena sinatu eta goialdean kokatzeko helburua ezarri. Halakorik ez da gertatzen ari, eta gainera ez dira amerikarekin asmatzeko gai izan.

3) Eskubaloikoek talde sendoa- ren irudia saldu zuten aurtengo denboraldirako. Esperientziarik gabeko entrenatzailea hautatzerakoan apustu gogorra ere egin zuten. Gaizki irten

zaie, azken postuan daude.

Kirolarien arteko poz bakarrenetariok emakumezko bartzuen hanketatik iritsi dira, emakumezkoen Mondra. Tanttaka, baina poz gehiago ere izan da, izen propioetatik datorrena gehienbat: Anartz Azkarraga pisu jaurtitzaila, Gaizka Aranegi judoka....

Aurtengoa esaldi bakar batean laburtu behar izanez gero: "Nahia eta ezina sarritan berdina" esango nuke.

*ITXARO ZUBILLAGA,
ARKOko kirol kazetaria*

INGURUGIROA


Aurrerapausoak behar

Ingurugiroaren alde lanetik kanpo saiatzen garenon aldetik urtearen balantzea egitea ez da oso erraza, lan desberdin, eta neurtzeko zailak direnak egiten saiatzen garelako.

Planteatuta geneuzkan lanak hiru ataletan bana daitezke:

1) Portaerak aldatzeko, natura ikuspuntu globaletik ikusteko, pentsamoldeak aldatu.

2) Udal eta Mankomunitatea ekologizatu. Horretarako planteatzen genuen inguruko Administrazioak ekintzak gauzatu aurretik ingurugiroaren hausnarketa egitea; ingurugiro zinegotzia lortzea, eta ingurugiroaren alde diharduten giza-emakume edota taldeekin erlazioak normalizatzea.



3) Arrasateri dagokion arazo ekologikoak konpontzea.

Lehenengo puntuan lortutakoa ez gara neurtzeko gai. Bigarrenean gauza batzuk lortuaren gehiena lortzeko dago. Hiperkritikoak garelako esan ez dezaten, lortu ditugunak ere aipatuko ditugu: Udalak AKEI eta froga nuklearrei buruzko mozioak onatatu ditu, eta Gabonetako kontsumismoaren aldeko kanpainarendako diru laguntza eman digu,

baina oraindik ez dago ingurugiro zinegotzirik; ezta erlazioak guk ulertzen ditugun bezala normalizatu ere. Hirugarrena da beltzena, guk aipatzen genituen zazpi arazo ekologiko garrantzitsuenetatik bat ere ez da konpondu: Errekak berreskuratu, lehenean daude. Maltzaga-Urbina eta abiadura handiko tren aurrera doaz. Hondakinen eta "lindane"ren arazoa konpontzeko daude, AKEI hor dago. Arrasateko harrobiak lehenetan dihardute. Garraio publikoa ez da lortu. Ingurune naturala antenaz josi nahi digute: Urdingainen (Alabita), Apotzatxebarrin, Kurtzetxikin...

Datorren urtean ere hemen izango gaituzue. Ea jokabideak aldatzen ditugun.

*MIKEL OLABE,
EKIko kidea*

OSASUNA

Zerbitzuak gehitu aurten

Iazko urtearekin konparatuz gero, orokorrean esan behar Eskualdeko Ospitalaren iharduera %6an igo dela aurtengoan.

Iharduera orokor horren igoeraren eragile nagusia programaturako kirurgia ekintzen gehikuntza izan da, %8a, ingresoetan %5eko jaitsiera egon den bitartean; azken datu honek anbulategiaren kontrol hobea adierazten duelarik, bai ospitaleko espezialisten aldetik bai lehen sorospenekoenetik. Gaiotasun ez kirurgikoen kasuan, gaur egungo anbulatoriazio prozesuen joerarekin bat egin da (gaisoa bere etxean sendatzen da, ospitalean baino agresibitate eta estress gutxiagoz).

Kanpoko kontsulteri dagokienez, iazko urtearekin konparatuta %3an hasi da.

Urgentzien Zerbitzuen erabilera, berriz, kopuruetan %3 jaitsi da, ingresatu duten larrialdien kopurua %5 igo bada ere.

Horren arrazoia zera da: Ospital Kanpoko Larrialdi Zerbitzua eta Ospital Barruko Larrialdiena toki berdinean kokatuta daudenez, larritasun gutxiko larrialdiak Ospital Kanpoko Zerbitzuak zaintzen dituela, era horretan larritasun handiko larrialdiak, ingresatzeko aukera handiagoz jakina, Ospital Barruko Zerbitzuak zaintzen ditu.

Erditze kasuetan ere igoera egon da, %7a 1994aren ondoan.

Aurten aipagarria da, Eskualde Ospitaleko ospitalizazio solairu berrien zimentazioaz gain, Scannerra martxan jarri izana, erditzean epiduralaren erabilera ekarri izana, eta Kirurgia Orokor Zerbitzuan kirurgia laparoskopikoaren sendotzea urte t,erdiko eboluzioaren ondoren, 2-5 eguneko egonaldiaz kirurgia biliarrean kirurgia arrunta erabiliz 6-7 eguneko zenean.

*GERMAN DOSANTOS,
Ospitaleko Zuzendari Medikua*



Gasteizen bizi diren arrasatearrak bigarren aldiz elkartu ziren azaroaren 25ean bazkaria egiteko. Zaldiaga jatetxean 114 arrasatear elkartu zen eta mahaian jarri aurretik, meza izan zuten Los

Angeles elizan. Hain ondo pasa zuten datorren urtean errepikatzeko asmoz geratu direla. Dagoeneko ohitura bihurtu behar da Gasteizen bizi ziren arrasatearren bazkaria.



AEKk errifak atera zituen Santamas egunean. Saria mariskada bat zen eta zozketa jendearean bertan egin zen, saritua Xabi Rico arrasatearra. Zorionak Xabi!



Txoronpia eta txoronpioren bisita jaso zuten arrasatearrek zapatu eguerdian. Olentzerori emateko eskutitz mordoia jaso zuten. Arratsaldean berriz, itsasontzi dotore baten zeharkatu zituen Olentzerok herriko kaleak.



Uribarriko elkarte gastronomikoak 25. urteurrena bete zuen joan zen asteburuan. Zilarrezko eztaiak betetzeko hainbat

ekintza antolatu zen: pilota partiduak, luntxa, mus txapelketa afaria. Egun borobila pasa zuten elkarteko bazkide guztiek.



La Merced ikastetxeko 8. mailako neska mutilak Bartzelonan izan dira. Bertan Zientzi-museoa, Planetarium-a, Ram-

blasak, Hiri Olinpikoa... ikusi dute. Bidaia kulturala izan bazen ere, parranda ederrak egiteko aukera izan zuten.



Nerea Isasti 10 urteko neskatoa Santamainako alkatetzan antolatu zen ipuin lehiaketako irabazlea da. 9-12 urte bitartekoaren artean lan onena aurkeztu zuen San Frantzisko ikastolako 5. mailan dabilen Nereak. Lanaren izenburua "Mutiko behartsua". Zorionak!

IZEN PROPIOAK

● Santamasetako lehiaketan irabazleak hauek izan dira. Hegaztietan: **Jose Iturbe** Bedoñako Bidasoro baserrikoak lortu zuen lehen saria. Bigarrena Bergarako **Ekaitz Arrutik** eta hirugarrena Arrasateko **Rafael Sanchezek**.

Barazkietan: lehen saria **Tomas Larrañaga** Antzuolako Lapatza baserrikoarentzat. Honek barazki ekologikoen artean sari berezia jaso zuen. Bigarrena **Jose Iturbe** arrasatearra eta hirugarren saria **Mercedes Urien** eta **Santos Duñabertiaren** artean banatu zen.

Fruitu lehiaketaren irabazlea **Jose Luis Madina** aramaioarra izan zen, bigarrena **Jose Manuel Iturriotz** eta hirugarrena **Bixente Pagoaga**.

● Santamas eskaparate lehiaketan hiru sari banatu ziren. **Ehune** dendak lehen saria eraman zuen 30.000 pta. eta garaikurra. Bigarrena **Nerea** dendarendako izan zen 25.000 pta. eta hirugarrena **Totem** zapata dendak jaso zuen 20.000 pta. Aipamen berezia San Andresko **Kuku** dendak eta Ferrerriasko **Jovik** jaso zuten.

MILARIOY
Taberna-jatetxea
Kafetegia

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



**Zorionak
eta**



**Urte Berri
On!**





G

aur baino elur gehiago egiten zuen lehen. Adineko guztiek esaten dute hori, eta

adinean hain urruti heldu ez garen askok ere badugu horrelako inpresiorik. Eskizale gehienak autoa hartu, kilometro piloia egin eta Pirineo aldera hurbiltzen dira urteko garai honetan. Orain urte batzuk, berriz, elurretan ibiltzeko ez zegoen oso urrutira joan beharrik.

Argazia 1950ko abenduaren 15ean aterata dago, Arantzazun. Egun horretan, goizeko 6.30etako meza entzun ondoren, Zerrajerako apendiz eskolakoak lantegiko kamioira igo eta Arantzazurantz abiatu ziren. Sarri

samar egiten zuten halakorik. Izan ere, horrelakoetarako eurek egindako eskiak zituzten, alkatzia egurrekoak; baita botendako lokarriak edo engantxeak ere. Jantziak, berriz, Zerrajerako bonberoek ziren, bonberoen uniformeak jakina. Lan horretarako aproposa izan zitekeen, baina eskiatzeko ez oso egokia. Kristoren hotza pasatzen ei zuten, gainera oinetan ez zuten jokorik.

Dena dela, gustora joaten ziren Arantzazur aldera. Normalean Goiko Benta ondoko zelaian behera abiatzen ziren, baina

batzuetan Duru aldeko zelaietara ere jotzen zuten. Hotza, esan bezala, handia. Apur bat berotzeko, Oñatiko soziedade batean geratzen ziren pikuak eta laranjak jateko, etxera etorri aurretik.

Argazkikoak honako hauek dira, ezkerretik eskumara: **Pedro Garitano** eta **Angel Mendibil** bergararrak, **Antonio Leturia** oñatiarra, **Patri Orobengoa**, **Pedro M. Zubizarreta** atxabaltarra, **Pepito Rodriguez**, **Lorentxo Altube**, eta **Markaide** abizeneko bergarar bat.

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

FELIPE
MADINA
ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Urte tristea Arrasateko kirol talde gehienentzat


FUTBOLA

Mondra ezin irten 19. tokitik

3. mailako Mondra noraezean ezin finkatu dabil aurtan. Iaztik hona erabat bat aldatu da taldea eta aurtan gazteen alde egin dute apostu. Gazteak baina esperientzia gutxi-koak. Hori asko igarri da eta apurka apurka talde itxura erakusten ari badira ere, oraindik bide luzea dutela esan daiteke. Mondrak urtea 19 tokian bukatu du 15 punturekin, 4 partidu irabazi, 3 berdindu eta 11 galdu ondoren. Hurrengo norgehiagokan Getxoren bisita jasoko du. Getxo goialdean kokatuta dagoen taldea izanda, pentsa daiteke gogoia baino gehiago beharko dela zerbait positibo ateratzeko.



Datorren urtean lan asko izango dute Arrasateko kirol taldeek egoera hobetzen.



Bere lekua bigarren entrenatzaileak bete du, Jesus Mari Herrerok. Herreroren zuzendaritzapean denboraldiko bigarren berdinketa lortu zuen taldeak. Bi berdinketa lortuta, bi punturekin azken tokian dago sailkapenean. Datorren urteko lehen neurketa urtarriaren 13an jokatu du Zarautzen.

SASKIBALOIA

Urte tristea Urbina Maltzagarentzat

Urbina-Maltzagak helburu handi eta aldaketa ugariz hasi zuen 95-96 denboraldia. Basconia



Taugresekin sinatutako akordioari esker lau jokalaria gazte baina maila onekoak etorri ziren Arrasatera: Jorge Garbajosa, Pedro Rodriguez, Iñaki Arrue eta Juan Pedro Cazorla. Hauez gain, Juan Jose San Pedro ere fitxatu zuten eta J.C. Harris amerikarra ekarri zuten taldea sendotzeko. Amerikarrak ez zuen espero zen maila eman eta taldetik kanpo utzi zuten. Bere ordez, Clinton Holtz etorri zen. Holtzek ere ez du mailarik erakutsi eta joan zen astean taldetik kanpo utzi zuten. Samaniego entrenatzaileak nahikoa lan izan du talde lehiakor eta sendoa osatzen eta ikusitakoak ikusita badirudi oraindik ez duela lortu.

Gaur arte Urbina Maltzagaren ezaugarri nabarmena irregulartasuna izan da. Jokatu dituen hamazazpi neur-

ketetatik zazpi irabazi ditu eta hamar galdu, sailkapeneko 11.a dago 23 punturekin.

Taldeko jokalarien artean kalitatea dagoela ikusten den arren, talde jokuan ez dira ondo moldatzen. Horrek badu bere arrazoia. Orain arte jokalaria guztiak gutxitan entrenatu dute elkarrekin. Basconiatik etorritako laurek, behin baino gehiagotan Gasteizko taldearekin jokatu behar izan dute.

Horrela bada, zaila da entrenatzailearen joko sistema domekero domekero praktikan jarriko duen taldea osatzea. Hala ere, oraindik asko falta da eta urte berrian egoerari buelta emateko aukera izango dute Samaniegoren mutilek. Lehen erronka Breogan taldearen kontra izango dute urtarriaren 7an. Breogan taldeko liderra da, bi neurketa baino ez ditu galdu.

ESKUBALOIA

Eskubaloikoek azken tokian bukatuko dute urtea

Eskubaloi taldearentzat ez da urte oparoa izan bukatzeko dagoena. Denboraldiari aurre egiteko itxaropen eta ilusioz beteta jarri ziren abian eskubaloikoak irailean. Taldea sendotzeko hainbat fitxaketa egin zuten. Nobedade handiena entrenatzaile postuan egon zen. Arrasateko historian lehenengoz emakume batek hartu zuen lehen mailako eskubaloi taldearen gidaritza: Rosa Lasagabaster. Rosarentzat dena dela, urtea ez da ona izan. Bere taldeak ezin izan zuen neurketarik irabazi eta duela 15 egun kargutik kendu zuten.

Beraun Bera taldea jaun eta jabe xake txapelketan

Taldekako Santamas xake txapelketa jokatu zen zapatuan Musakolako kiroldegian. Castro Urdiales, Logroño, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 15 taldek hartu zuten parte. Urtero moduan parte-hartzaileen artean maila handia egon zen eta lehia bizian aritu ziren xake jokalariai arratsalde osoan. Aurten taldekako txapelketa izan da, lau laguneko taldeak osatu ziren eta elkarren kontra jokatu behar izan zuten. Lehia horretan talde onena Errenderiko Beraun Bera izan zen, berak jaso zuen txapeldunaren garai-kurra, bigarrena Aretxabale-tako Arlutz, hirugarrena Castro Urdiales eta laugarrena Portugalete. Jokalarien artean bat aipatu behar: Fran Miguel atxabaltarra. Franek 14 partidetatik 13 irabazi zituen eta bakarra galdu.

Bestalde zapatuan ere, Santamas igeriketa txapelketa jokatu zen igerilekuan. 90 igerilarik hartu zuten parte eta igeriketa klasikoko abiadura frogak egin zituzten. Txapelketa bukatuta erreleboko bes-



Xakea izan zen protagonista Musakolan.

te froga bat egin zuten parte-hartzaileek. Hamar laguneko taldeak osatu ziren eta 50 metro igerian egin zituz-


ten. Froga guztiak bukatu ondoren, sariak banatu ziren neska mutilen artean eta txistorra jan zuten txoznan.

Rugbyko taldea sailkapeneko goialdean

Arrasate rugby taldeak Euskal Herriko Unibertsitate taldearen kontra neuruko ditu indarrak urtarfilaren 6an arratsaldeko 4etan. Patxi Gorosabelen mutilentzat irabazteko moduko partidua izango da. Helburua dena dela, ez da irabaztea bakarrik izango, irabazi eta ondo jokatzen ahaleginduko dira. Izan ere, otsailean Euskal ligara igotzeko promozio fasea jokatuko da eta ordurako sasoiaren gotea nahi dute.

Zaldibar txapelketa Gabonetan

Zaldibar txapelketa Gabonetako jaiak direla eta, eten egin da eta urtarrilaren 13a arte ez da abian jarriko. Asteburu horretan berriro izango da protagonista futbitoia Zaldibar eta Iturripen. Urtarrietik otsailaren azken aste-bukaera arte lehen faseko azken ihardunaldiak jokatuko dira. Martxoan oster, bigarren faseari emango zaio hasiera.



ARROGOI TABERNA

1995ak laster itxiko ditu bere ateak eta guk gureak zabaldu berri ditugu 1996ari ongietorria emateko.

Hasi urtea gurean!

Zarugalde, 28 • ARRASATE
79 06 40

Luis Ignacio Ruiz de Alegria

Goikobaluko zuzendaritza utzi

la zazpi urtetan ibili da Luis Ignacio Ruiz de Alegria Goikobaluko ahotsak hezten. Donostiar honek abesbatza jaiotzen ikusi zuen baina orain, bere eginbeharra bete duela ikusi eta gero, alde egiteko ordua iritsi zaiola uste du.


— Zergatik hartu duzu abesbatza uzteko erabakia?

— Donostian bizi naiz eta hona etortzen ibili beharrak nekatu egin nau. Aspaldian esaten ari nintzen abesbatza uztera nihoala eta orain momentu ona dela uste dut. Goikobalun jende oso prestatua dago eta gainera, arrastear batek abesbatza zuzentzea onuragarria izan daiteke, entsaioetarako denbora gehiago izango duelako eta taldea gertuagotik eraman ahal izango duelako. Nire etapa amaitu da eta jende gazteagoari eman behar zaio aukera.

— Donostiako Orfeoiak Goikobaluko ahots asko eramaten du bere emanaldietara. Ez al da hori txarra Goikobalurentzat?

— Donostiako Orfeoia Euskal Herrian dagoen altxor artistiko bat dela uste dut eta guztiok eman behar diogu laguntza, baita Goikobaluk ere. Baina gauza bat gertatzen da: gure abesbatza haziz joan den heinean, beste talde batzuk gugan fijatu direla eta Orfeoiarekin egiten ditugun kolaborazioetan dependentzia bat sortzen bada, arazo bat sor daiteke ere. Dena dela, gure asmoa Orfeoarekin kolaboratzea baino ez da izan, eta Goikobaluk hortan jarraitu behar duela uste dut.

— Nola deskribatuko zenuke Goikobaluren gaur egungo



egoera?

— Goikobaluk orain kalitate handia du, musika enpresa handiengan interesa sortu dezakeela ikusten dut. Dena den, zuzendaritzaz aldatu du orain eta behar bada etapa zail bat bizi izango du denbora batean.

— la zazpi urte eman dituzu abesbatza zuzentzen. Nola aurkitu zenuen abesbatza hasi zinenean?

— Egia esan ez nuen abesbatzarik aurkitu, kantatzeko gogoia zuen pertsona talde bat baizik. Ahots frogak egin nituenean oso onak zeudela ikusi nuen eta lan egiteko material polita zegoela

konturatu nintzen.

Bestalde oso maila musikal oneko jendea zegoen eta hori Arrasaten betidanik egon den afizio musikalaren lekuko da. Horren denbora gutxian Goikobaluk lortu duen maila ez da harritzekoa eta horrek horrela izaten jarraitu behar du.

— Zuzendu dituzun obra guztietatik, zeinekin geratu zara poziago?

— Carmina Burana obrak maila profesionala lortu zuela uste dut, egon daitekeen maila altuena lortu zuela esatera ausartzen naiz. Gauza bera esango nuke Beethovenen 9. Sinfoniar buruz. Dena

dela, ustekabeagoan igaro diren beste obra batzurekin asko disfrutatuta dut ere, niri gehien gustatzen zaidan musika barrokkoa da eta.

— Zer egingo duzu orain?

— Orain atseden hartu nahi dut nahiz eta abesbatza batzuk zuzentzeko eskaintzak egin dizkidaten. Bada, kit hamabost egun barru lanean hasteko gogoia sortuko zaidala baina nahiago dut atsedenaldi bat hartzea eta ondoren lanean hastea berriz. Dena dela, ez daukat esperientziarik ez duen edo hasi berria den abesbatza bat zuzentzen hasteko gogoia; Goikobaluren maila bera edo altuagoa izango lukeen abesbatza batekin hastea gustatuko litzaidake.

— Joan den ostegunean Goikobaluk zure zuzendaritzapean prestatutako azken emanaldia eskaini zuen. Zer sentitu zenuen?

— Zuzendari batek bere abesbatzarekin daukan harremana maiteminduta dagoen bikote bateko bi lagunek daukatenaren antzekoa dela uste dut. Ni Goikobalurekin maiteminduta nago baina apurtzeko ordua heldu da eta hutsune handi bat sentitzen dut barruan. Dena dela harremanetan jarraitzeko asmoa daukat eta ahal dudanean Arrasatera etorriko naiz Goikobalukoekin egotera.

— Goikobalu zure seme-txoa da...

— Bai. Goikobalurekin oso urrun heldu gara eta nik nire aportazio txikia egin dudala uste dut. Goikobaluk nik eta beste askok mundura ekarri dugun ume osasuntsu bat delako pozik alde egingo dut.

.....
“Goikobalurekin maiteminduta nago baina apurtzeko ordua heldu da”



Urtarrilaren 2an zabalduko du atek Txikilandiak.

Txikilandia umeen Gabonetako zita alaia

Aukera ezin hobe izango dute Arrasateko eta inguruko txikienek oporretako azken egunak jolasean igarotzeko. Txatxilipurdik eta Udalak antolatuta urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5ean Txikilandia parkea kokatuko da Musakolako kiroldegian.

Txikilandia parkea 6 areatan banatuta egongo da. Lehen arean kantxako jolasak izango dira; zezen mekanikoa, laberinto, mendi puzgarria, jirafa puzgarria, ohe

elastikoak, rolex pista, zoo puzgarria, zaldi mugikorak eta gaztelu puzgarria. Bigarren arean kirol desberdinak egiteko aukera izango dute umeek: rokodromoa, bulderra, puentinga eta kars'ak egongo dira. Hirugarren arean tailergintza jorratuko da; sorkuntza, kandelagintza, globoflexia, irratigintza, ipuingintza eta ileapaindegia. Laugarren area pizinan egongo da eta uretan jolasteko aukera izango dute txikiek.

Bostgarren area Aerobik area izango da eta musikarekin batera dantzatuko dute umeak bertan. Seigarren arean karaokea egongo da.

Txikilandiara joateko Txatxibusa ere antolatu da. Autobusa Eskoriatza, Aretxabaleta eta Aramaiotik pasatuko da umeak jasotzeko goizez 10.15etatik 12etara. Txikilandiatik etxera joateko, berriz, goizez 1.05etatik 2.40etara ibiliko da Txatxibusa eta dohainekoa izango da.

JAIALDIA

Arrasate Kantari II. Kantu Jaialdia

Joan den ekainaren 10ean AEDk eta herriko beste hainbat taldek antolatutako Arrasate Kantari jaialdiak izan zuen arrakasta ikusita, esperientzia bera errepikatzea erabaki da. Arrasate Kantari II. kantu jaialdia 96ko martxoaren 23an gaueko 10.30etan izango da. Parte hartu nahi duten guztiak otsailaren 16ra arte izango dute izena emateko epea zabalik.

Oinarriak

Hamabost urtetik gorako edozein pertsonak, taldek eta koadrilak parte har dezake, gehienez zortzi lagunek osatutako taldeak badira. Talde edo parte hartzaile bakoitzak bi abesti kantatuko beharko ditu eta gehienez 6 minutuz luzatu ahal izango da.

Musika estiloa librea da baina abestiak euskeraz izango dira eta musika tresnaz lagunduta edo laguntza barik kantatu ahal izango da.

Jaialdian parte hartzeko izenematea AEDn egin behar da eta orriak bertan jaso daitezke.

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

ARETXABAETA

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeko gozoteria

2. PLATERA


Haragia edo arraina

Etxeko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

Etxebizitzak

- **Garaje itxia alokagai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisua salgai Erguinen.** Tfnoa: 77 02 01.
- **Pisua salgai San Andresen.** 65 m² ditu. Tfnoa: 79 53 50.
- **Biltegi bezala erabili daitekeen lokala alokagai merke merke.** Kalealdean dago eta 34 m² ditu. Tfnoa: 79 20 48.
- **Etxebizitza salgai** Pablo Uranga kalean, 8. solairua. Jantzi berria. Tfnoa: 79 55 28.
- **Garaje itxia salgai edo alokagai** Larrea plazan. Tfnoa: 79 39 50. Gaez dei egin

Lana

- **Neska gertu umeak edo gaisoak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 92 86. Ainhoa.
- **Neska gertu etxeko lanak egin** edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 07 58. Marisol.
- **Etxean, dendan...** edozein lanetarako gertu. Tfnoa: 79 76 45.
- **Lurra barnizatu** (barniz ekologikoarekin) eta parketa jartzen dut. Eskatu aurrekontua konpromezu barik. Tfnoa: 71 50 72.
- **Neska prest umeak zaintzeko** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 96 10.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Latinezko klaseak jasoko nituzke.** Tfnoa: 79 94 92. Dei egin arratsaldeko 7etatik aurrera. Pilar.
- **Klinikako eta geriatriako laguntzailea** pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 39 09.
- **Emakume euskalduna prest umeak** edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lana egiteko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira,** esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 28 98.
- **Sukaldari lana egiteko gertu.** Tfnoa: 79 04 53 edo 13 36 76.
- **Arratsaldetan umeak zaindu** edo etxeko lanak egiteko neska gertu. Tfnoa: 77 07 58.
- **Neska euskaldun bat umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 04 10.
- **Irlandatik etorri berria ingelesezko klase partikularrak emateko prest.** Tfnoa: 79 21 56.
- **Ileapaintzaile diplomaduna** lan egiteko prest. Tfnoa: 79 63 18.
- **Langabezia dagoen irakasleak** euskaraz zein erdaraz klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 90 04. Dei egin eguerdian.

Salerosketak



- **Volkswagen Passat diesela edo antzerako kotxea erosiko nuke.** Egoera onean eta merkea bada. Tfnoa: 77 09 40.
- **P-12 Sanyo bideo kamara salgai.** Berri berria dago, estreinatu barik. 75.000 pta. Dei egin eguerdian 79 51 27 tfnora. Jabi.
- **Baserriko kiwiak salgai.** Etxeraino eramango dizkizugu. 125 pta. kilo. Tfnoa: 79 97 84.
- **Artzai txakur emea oparitzen da,** gaztea da. Tfnoa: 88 75 80.
- **Trabesiako skia egiteko botak salgai.** Koflach Veluga 43-44 zenb. hiru aldiz erabilita. 12.000 pta. Bolle MicroEdge II eguzki betaurrekoak ski edo txirrinduan ibiltzeko aproposak. 4.000 pta. Tfnoa: 79 02 10. Asteburutan.

Denetarik

- **Giltza batzuk galdu nituen** San Andresetik Erdiko Kalerako bidean. Estutxe berde baten barruan daude giltzak. Tfnoa: 77 06 51. Blanca.
- **Abenduraren 25eko** arratsaldean urrezko pulsera galdu nuen erdialdean. Elisabeth izena jartzen du. Tfnoa: 79 13 01. Sarituko da.

Etxe-Aundi

Torrauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue;
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorniu

10 KILOMETRORA

500.000 PTA.

ZUREAK IZAN

DAITEZKE.



Bergaran, Espaloian, kutsu handieneko pasealekua; 4 dendek erdi miloidun izateko aukera ematen dizute oinetakoak, poltsak, larruzko arropak, lentzeria, dekorazio eta opari artikulua, altzariak, telak eta 500.000 osagarri erosiz.

URTE BERRI ON!

MILA ESKER GUGAN SINISTEAGATIK.

6.200 etxebizitzetan Arrasate Pressekin atek zabalik izan dituelako.

Arrasate Telebista, zappingaren gaitetik, Arrasateko 3. telebista izatea lortu duzuelako.

Zuen informaziorako gida aukeratzeagatik.

Zuen publizitatea Arrasate Komunikabideak-eko zutabe izan delako.

Eskerrik asko eta...

URTE BERRI ON!



ARKO

ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



Erakusketa berria.



Konfindantzako zerbitzua.



Proiektuak zure neurrira.



Muntaiaren akabera ezinhobea.

Zure ametssetako sukaldea lortzeko lan-talde profesionala aurkituko duzu IKER Sukaldeetan.

URTE BERRI ON!

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42

FAGOR 